

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**AZKOITIKO UDALA**

*Iragarkia*

2017ko maiatzaren 31ko Udalbatza Osoak, beste batzuen artean, honako akordioak onartu zituen:

*Lehena.* Azkoitiko udala eta Izenpe S.A.ren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, udal honek erregistro-erakundetzat jardun dezala, herritarren identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikokoak jaulkitzeko jardunbidean, ondoko klausulen arabera:

*Lehena. Xedea.*

Azkoitiko udala Izenperekin lankidetzan arituko da identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikokoak jaulkitzen, eta erregistro-erakundetzat jardungo du.

Erregistro-erakundetzat jarduteak berekin ekarriko du zeregin hauek egitea: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, erregistro-erakundean jasotako inguruabarren ziurtagiriak egiaztatzea, eta igortzeko, ezeztatzeko/baliogabetzeko eta berritzeko eskakarak baliozkotu eta onartzea.

*Bigarrena. Indarraldia.*

Hitzarmen honek urtebeteko indarraldia izango du, berori sinatzen denetik hasita, eta automatikoki berrituko da idatziz eta fede emanez salatzen ez badu aldeetako edozeinek, betiere epemuga baino bi hilabete lehenago gutxienez.

*Hirugarrena. Betebehar ekonomikokoak.*

Hitzarmen honek ez du sorraraziko betebehar ekonomikorik aldeetako inorentzat.

*Laugarrena. Aldeen betebeharrak.*

\* Izenpek.

— Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan esleitzen zaizkion betebeharrak beteko ditu.

— Konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren zerbitzuak egiteko, oinarri hartuta eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioak.

\* Azkoitiko udalak.

— Erregistro-erakundearen zereginak egingo ditu, Izenperen Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan ezarritakoari jarraituz.

— Konpromisoa hartzen du bere jarduneari oinarri hartuz eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioak.

— Bete egingo du Izenperen hornitzaileen segurtasun-politika.

*Bosgarrena. Aldeen erantzukizuna.*

\* Izenpek.

— Hemen zehaztutakoa egoki betetzeaz erantzungo du.

**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 31 de mayo de 2017, entre otros, aprobó los siguientes acuerdos:

*Primero.* Aprobar el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Azkoitia e Izenpe, S.A. para que este Ayuntamiento actúe como Entidad de Registro en la expedición de los medios electrónicos de identificación y firma de la ciudadanía, según las siguientes cláusulas:

*Primera. Objeto.*

El Ayuntamiento de Azkoitia colaborará con Izenpe en la expedición de los medios electrónicos de identificación y firma, actuando como Entidad de Registro.

La actuación como Entidad de Registro consistirá en la realización de las tareas de comprobación de la identidad de los usuarios, comprobación de la documentación acreditativa de las circunstancias que constan en las mismas así como la validación y aprobación de las solicitudes de emisión, revocación/anulación y renovación.

*Segunda. Periodo de vigencia.*

El presente acuerdo tendrá una vigencia de un año a contar desde la firma del mismo y se renovará automáticamente si no se denunciara por escrito de forma fehaciente por cualquiera de ellas con dos meses de antelación como mínimo a la fecha de su vencimiento.

*Tercera. Obligaciones económicas.*

El presente Acuerdo no generará obligaciones económicas para ninguna de las partes.

*Cuarta. Obligaciones de las partes.*

\* Izenpe.

— Cumplirá las obligaciones que le atribuye su Declaración de Prácticas de Certificación.

— Se compromete a prestar los servicios objeto del presente acuerdo basándose en los principios de eficiencia, calidad, seguridad y transparencia.

\* Ayuntamiento de Azkoitia.

— Realizará las tareas de Entidad de Registro atendiendo a lo establecido en la Declaración de Prácticas de Certificación de Izenpe.

— Se compromete a basarse en los principios de eficiencia, calidad, seguridad y transparencia, en su actuación.

— Cumplirá la Política de seguridad de proveedores de Izenpe.

*Quinta. Responsabilidad de las partes.*

\* Izenpe.

— Responderá de la correcta prestación de lo aquí determinado.

– Hitzarmen honen ondoriozko bere betebeharrak ez bete-  
ztearen ondorioz eragiten dituen kalteen erantzulea izango da.

– Zehazki, konfiantzazko zerbitzuen egile gisa, bere jardue-  
ren eraginez edozein pertsonari eragiten dizkion kalte-galerei  
erantzungo die, baldin eta hitzarmen honek edo konfiantzazko  
zerbitzuen alorrean aplikatzekoa den legeriak ezartzen dizkion  
betebeharrak betetzen ez baditu edo arduragabekeriak jarduten  
badu.

\* Azkoitiko udala erantzule izango da,

– Izenperen aurrean, hitzarmen honetan zehaztutako bete-  
beharrak ez betetzearen ondorioz eragiten dituen kalteak direla  
eta.

– Zerbitzua egoki erabiltzeaz, hitzarmen honetan zehaztuta-  
koaren arabera.

– Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan zehaztutakoa bete-  
tzeaz, aplikatzekoa den guztian.

*Seigarrena. Datuen babesa.*

I. Aplikatzeko datu pertsonalen babes-erregimena izango  
da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999  
Legean (aurrerantzean, DBLO) eta hori garatzen duten arauetan  
aurreikusitakoa.

Zehazki, Izenpek (aurrerantzean, Erantzulea) izango du hit-  
zartutako zerbitzuen datuak tratatzen dituzten fitxategien  
ardura, DBLOaren arabera.

Fitxategi horiek Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren  
Erregistro Nagusian deklaratu daude.

Izenpek datu pertsonalei aplika dakizkiekeen segurtasun-  
neurriak bermatuko ditu, izaera teknikokoak zein antolamendu-  
koak, betiere Izenperen segurtasun-politikako dokumentuan  
ezartzen denari jarraituz.

II. Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera Izenperen  
erregistro-erakunde gisa diharduenean, Azkoitiko udala izango  
da tratamenduaren arduraduna (aurreratzean, Arduraduna),  
DBLOaren 12. artikulua arabera.

\* Arduradunak.

– Ezin izango ditu datu horiek erabili hitzarmen honetan  
adierazitako xedeaz bestelako xede baterako.

– Hitzematen du datuak Erantzuleak adierazten dizkion  
jarraibideen arabera tratatuko dituela (kasu honetan, segurta-  
sun-arduradunaren aginduak dira).

– Ez dizkie inola ere datuak jakinaraziko, erakutsiko, lagako  
edo emango harremanaz kanpo dauden hirugarren pertsoneri,  
ezta kontserbatzeko badira ere.

– Hitzematen du indarrean dagoen eta aplikatzekoa zaion  
datuak babesteari buruzko legerian xedatutako guztia beteko  
duela.

– Gauzak horrela, Arduradunak edo haren mendekoetako  
edozeinek hitzarmenaren ondorioz ezagutzen duen datu oro  
erabat konfidentziala da, eta ezin izango die jakinarazi hiruga-  
rren batzuei, ezta norberak erabili ere. Berarentzat eta eragin-  
pean daudenentzat sor daitezkeen kalteengatik erantzun  
beharko du.

– Ziurtatzen du bere kargura dauden langileek konfiden-  
tzialtasun-klausula bat sinatu dutela, eta, hori dela-eta, langile  
horiek hitzeman dutela bere karguaren edo zereginaren ondo-  
rioz ezagutzen duten informazioaren berri emango ez dutela,  
hitzarmen hau gauzatzen den bitartean zein ondoren.

– Hitzarmen honen ondoriozko daturen bat mantentzeko  
baimena jaso badu, zerbitzugintza amaitutakoan datu hori Erant-  
zuleari itzuli edo, hala badagokio, suntsitu egin beharko du,  
baita datu hori jasoarazten duen euskarria edo dokumentua  
ere.

– Será responsable de los daños causados debidos al  
incumplimiento de sus obligaciones de acuerdo con el presente  
acuerdo.

– En particular, como Prestador de Servicios de Confianza,  
responderá por los daños y perjuicios que cause a cualquier  
persona en el ejercicio de su actividad cuando incumpla las obli-  
gaciones que le impone este acuerdo o la legislación aplicable  
en materia de prestación de servicios de confianza o actúe con  
negligencia.

\* El Ayuntamiento de Azkoitia será responsable.

– Frente a Izenpe por los daños causados derivados del  
incumplimiento de sus obligaciones determinadas en este  
acuerdo.

– Del uso adecuado del servicio según lo determinado en el  
presente acuerdo.

– Del cumplimiento de lo determinado en la Declaración  
de Prácticas de Certificación en lo que sea de aplicación.

*Sexta. Protección de datos.*

I. El régimen de protección de datos de carácter personal  
aplicable, será el previsto en la Ley 15/1999, de 13 de diciem-  
bre, de Protección de Datos de Carácter Personal (en adelante,  
LOPD) y en su normativa de desarrollo.

En particular, Izenpe, en adelante Responsable, será res-  
ponsable de los ficheros que tratan los datos de los distintos  
servicios acordados, conforme la LOPD.

Dichos ficheros, se encuentran declarados ante el Registro  
General de la Agencia Española de Protección de Datos.

Izenpe garantiza las medidas de seguridad de carácter téc-  
nico y organizativo aplicables a los datos de carácter personal  
según lo determinado en el documento de Política de Seguridad  
de Izenpe.

II. El Ayuntamiento de Azkoitia, cuando actué como Enti-  
dad de Registro de Izenpe, según lo establecido en el presente  
acuerdo, se convierte en encargado de tratamiento, en adelante  
Encargado, conforme al artículo 12 de la LOPD.

\* El encargado.

– No podrá utilizar dichos datos para otro fin distinto del  
indicado en el presente acuerdo.

– Se compromete a tratar los datos conforme a las instruccio-  
nes que le marque el Responsable y que en este supuesto se con-  
creta en las órdenes emanadas del Responsable de Seguridad.

– En ningún caso comunicará, mostrará, cederá ni revelará  
datos, ni siquiera para su conservación, a terceras personas  
ajenas a la relación.

– Se compromete a cumplir todo lo dispuesto en la legisla-  
ción vigente sobre protección de datos que le sea de aplicación.

– Así, todo dato que conozca el Encargado, o cualquiera de  
sus subordinados, como consecuencia de la realización del  
acuerdo, debe mantenerse en la más estricta confidencialidad,  
no pudiendo comunicarse a terceros ni emplearse en uso pro-  
pio, respondiendo de los posibles perjuicios que se pudieran  
derivar para el responsable y para los afectados.

– Garantiza que el personal a su cargo ha firmado una cláus-  
ula de confidencialidad por la que éstos se comprometen a no  
revelar la información que conozcan en función de su cargo o  
cometido durante la prestación de la presente encomienda y  
posteriormente a la misma.

– En el supuesto que haya sido autorizado a mantener  
algún dato proveniente del presente acuerdo, se obliga a devol-  
verlo al Responsable una vez cumplida la prestación, o en su  
caso destruirlo, al igual que el soporte o documento en el que  
conste el mismo.

– Bestalde, DBLOan jasoarazten den erantzukizun-erregimenaren mende izango da, eta pertsonalki erantzun beharko du, baldin eta datuak hitzarmen honetan adierazitako xedeaz bestelako xede baterako erabiltzen badira, hirugarren batzuei datuen berri ematen badie, edo hitzarmen honetako klausularen bat bete gabe erabiltzen baditu.

– Indarrean dagoen datuak babesteari buruzko araudiak ezartzen dituen bidezko segurtasun-neurriak –fisikoak, logikoak eta antolamendukoak– ezarri beharko ditu. Zerbitzugintzan eskura dituen datu pertsonalen araberako neurriak izango dira.

Erantzuleak, egoki baderitzo, datuak babesteari buruzko ikuskapen-txostena eskatu ahal izango du urtero. Ikuskapen horren mende izango dira zerbitzugintzako datu pertsonalen tratamendu automatizatuan esku hartzen duten pertsonak, fitxategi automatizatuak, tratamendu-zentroak, lokalak, ekipamenduak, sistemak eta programak.

Txosten horretan banakatuta jasoko dira, batetik, kontratatutako zerbitzuak eta, bestetik, DBLOaren eta segurtasunari dagokion haren garapen-araudiaren betetze-maila.

Ikuskapena arduradunak eta erantzuleak aurretik onartutako aditu independenteek egingo dute. Edonola ere, haien ingurunean izen handiko profesionalak izango dira.

Arduradunak hitz ematen du datuak babestearen alorreko aldian behingo ikuskapenak egin ahal izateko moduko informazio-sistemak eta -aplikazioak ezarriko dituela.

#### *Zazpigarrena. Konfidentzialtasun klausula.*

Hitzarmen honetan zehaztutako xedearen ildotik, aldeek informazio eta/edo dokumentazio konfidentziala izan dezakete eskura. Konfidentzialtasun horri eusteko, bi aldeek konpromisoa hartzen duten jarraian adierazten diren hitzarmenak bete zeko.

– Eskura duten tratatutako informazio eta/edo dokumentazio guztiaren gainean ahalik eta erreserbarik handiena mantentzeko eta isilpean gordetzeko konpromisoa hartzen dute. Bi aldeek informazio hori konfidentzialtzat joko dute ondorio guttiarako.

– Ez diete inola ere hirugarren batzuei eskura duten informazioaren eta/edo dokumentazioaren berri emango, ezta informazioa gordetzeko ondorioetarako ere. Zehazki, hirugarren pertsona batzuei ez diete inoiz ere lanen barruan haiengana irits daitekeen edozein motatako informazioa emango, baldin eta ez badute hori egiteko beste aldearen aurretiazko adostasun idatzirik.

– Era berean, konfidentziala izango da hitzarmen honen ondoriozko informazioaren inguruan aldeek jaulkitako edozein txosten edo ahozko zein idatzizko jakinarazpen. Ezin izango zaie hirugarren batzuei erakutsi eta ezin izango da banatu edo jenduraren aipatu beste aldearen aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe.

– Ematen zaien edo eskura duten informazioaren segurtasuna (integritatea, eskuragarritasuna eta konfidentzialtasuna) bermatzeko beharrezko neurri tekniko guztiak mantenduko dituzte une oro, baita antolamendu-neurri guztiak ere. Kasuak kasu agintzen zaizkien lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak egiten diren bitartean, informazioa aldatzea, galtzea, tratzea edo baimenik gabe sartzea saihestuko dute.

– Haien langileek egiten dituzten zereginak hitzarmen hau betetzeko behar-beharrezkoak diren zereginetara soilik eta berariaz mugatuko direla bermatu dute. Era berean, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak eta eskura duten informazioa tratatzearekin lotzen diren betebeharrak jakinarazi beharko dizkiete haien langileei eta laguntzaileei. Zehazki, betebeharrak betetzen direla bermatzeko, behar beste ohar luzatuko dizkiete haien langileei eta beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetuko dituzte.

– Quedará sujeto al régimen de responsabilidad que instaure la LOPD y responderá personalmente siempre que destine los datos a una finalidad diferente a la estipulada en el presente acuerdo, los comunique a terceros, o los utilice incumpliendo alguna de las cláusulas de este acuerdo.

– Deberá implantar las medidas de seguridad precisas de tipo físico, lógico y organizativo que, en función de los datos de carácter personal a los que tenga acceso durante la prestación de los servicios, impone la normativa vigente de protección de datos.

El Responsable podrá, si lo estima conveniente, solicitar anualmente el informe de auditoría de protección de datos de los ficheros automatizados, los centros de tratamiento, locales, equipos, sistemas, programas y las personas que intervengan en el tratamiento automatizado de los datos de carácter personal durante la prestación de los servicios.

En dicho informe se desglosarán los servicios contratados y el grado de cumplimiento conforme a la LOPD y de su normativa de desarrollo sobre Seguridad.

La auditoría será realizada por expertos independientes, aceptados previamente por el Responsable y el Encargado. En todo caso, serán profesionales de reconocido prestigio dentro de su plaza.

El Encargado, se compromete a implantar las aplicaciones y Sistemas de Información de forma que sea posible la realización de auditorías periódicas de protección de datos.

#### *Séptima. Clausula de confidencialidad.*

En relación al objeto definido en el presente acuerdo, las partes podrán tener acceso a información y/o documentación confidencial. Con la finalidad de mantener este carácter confidencial, ambas partes se comprometen a cumplir las estipulaciones que se convienen a continuación.

– Se comprometen a guardar la máxima reserva y secreto sobre toda la información y/o documentación tratada a la que tengan acceso, y que a todos los efectos será considerada por ambas como información confidencial.

– No comunicarán en ningún caso a terceros la información y/o documentación a la que tengan acceso, ni tan siquiera a efectos de su conservación. De forma específica, no revelarán nunca sin el consentimiento previo por escrito de la otra parte a terceros ninguna información de cualquier naturaleza que pueda llegar a su conocimiento en el curso de los trabajos.

– El carácter confidencial afectará igualmente a cualquier informe, comunicación oral o escrita emitidos por las partes, en relación a la información derivada del presente acuerdo, y no deberán ser mostrados a terceros, ni distribuido, ni mencionados públicamente sin el consentimiento previo y por escrito de la otra parte.

– Mantendrán en todo momento todas las medidas de carácter técnico y organizativo necesarias para garantizar la seguridad (integridad, disponibilidad y confidencialidad) de la información que les sea entregada o facilitada o a la que tengan acceso, evitando su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado durante la realización de los trabajos, proyectos, servicios y pedidos que, en cada caso, le hubieran sido encargados.

– Garantizan que las actividades llevadas a cabo por su personal se limitarán única y exclusivamente a las tareas necesarias para el cumplimiento del presente acuerdo. Asimismo informarán a su personal y colaboradores de las obligaciones establecidas en el presente acuerdo, así como de las obligaciones relativas al tratamiento de la información a la que tengan acceso. De forma específica, realizarán cuantas advertencias y suscribirán cuantos documentos sean necesarios con su personal y con el fin de asegurar el cumplimiento de tales obligaciones.

– Aldeek onartzen dute eta bere gain hartzen dute informazioa soilik eskuratu eta tratatuko dela hura eskuratzea beharrezkoa bada hitzartutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta/edo eskariak egiteko.

Informazio hori eskuratu eta tratatzean, ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak errespetatuko dituzte, Azkoitiko udalak bere aldetik ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak baztertu gabe. Azken horiek ere nahitaez bete beharko dira segurtasun-maila handitzen badute.

Kasuak kasu erabakitzen diren lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak egiten amaitu ostean, edozein formatutan jaso duten informazio guztia itzuli edo suntsitu beharko dute. Ezin dute inola ere gorde informazio horren guztiaren edo zati baten kopia, ezta agindutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak betetzearen ondorioz sor daitekeen bestelako informazioaren kopia ere.

– Bermatuko dute konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren betebeharrak iraun egingo duela hitzarmen hau amaitu ostean ere edozein kausagatik amaitzen delarik. Betebehar horrek, beraz, iraupen mugagabea izango du.

*Zortzigarrena. Kontratua deuseztatzea.*

Kontratua amaituko da, lege ezarritako eta klausuletan xedatutako kausez gain, honako kausetako bat suertatzen denean:

– Bi aldeen arteko adostasuna.

– Aldeetako batek kontratuaren ondoriozko betebeharrak ez betetzea.

– Izenpek ezarritako zuzentarauak ez betetzea.

Lehen adierazitako kausengatik edo zuzenbidean onartutako beste edozeinengatik kontratua deuseztatu edo deseginez gero, Azkoitiko udalak bete egin beharko ditu kontratu hau deuseztatu aurretik Izenperen aurrean eta hirugarren batzuen aurrean bere gain hartutako betebeharrak.

*Bederatzigarrena. Aldaketa eta jarraipena.*

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean aldaketak egin daitezke, betiere izenpetzen duten alderdiek elkarrekin adostuta, eta erabakitako aldaketak hitzarmenari gehituko zaizkio eranskin moduan.

*Hamargarrena. Jurisdikzioa.*

Hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean, bi aldeen artean sortzen den edozein auzi ebazteko Gasteizko auzitegien eta epaitegien mende jarri beharko da.

*Bigarrena.* Azkoitiko Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena izenpe dezala Udalaren ordezkartzan.

*Hirugarrena.* Lankidetzat hitzarmenaren testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Gardentasun atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan b) atalean xedaturikoarekin bat, eta Udaletxeko Iragarki taulan zein Web Orrian argitaratzea.

*Laugarrena.* Erabaki hauek Izenpe S.A.ri eta Udaleko Kontu-hartzailetza Sailari jakinaraztea.

Azkoitia, 2017ko ekainaren 1a.—Alkatea. (4069)

– Reconocen y asumen que el acceso y el tratamiento de la información se llevará a cabo únicamente si tal acceso es necesario para la realización de los trabajos, proyectos, servicios y/o pedidos acordados.

Durante dicho acceso y tratamiento de la información, respetarán todas y cada una de las políticas, normativas y procedimientos establecidos sin menoscabo de todas las políticas, normativas y procedimientos establecidos de forma autónoma por el Ayuntamiento de Azkoitia que serán igualmente de obligado cumplimiento siempre que repercutan en un mayor nivel de seguridad.

Una vez concluida la realización de los trabajos, proyectos, servicios y pedidos que en cada caso se acuerden, procederán a devolver o a destruir la totalidad de la información que hubieren recibido en cualquier formato, no pudiendo en ningún caso conservar en forma alguna copia, total o parcial, de dicha información o de cualesquiera otra que hubieran podido generarse a resultados del cumplimiento de los trabajos, proyectos, servicios y pedidos encargados.

– Garantizan que el deber de confidencialidad y secreto profesional subsistirá aun después de finalizar por cualquier causa del presente acuerdo, teniendo dicha obligación de confidencialidad una duración indefinida.

*Octava. Resolución del contrato.*

El contrato finalizará cuando, además de las causas legalmente establecidas y las dispuestas en las distintas cláusulas, concorra alguna de las siguientes:

– Mutuo acuerdo de las partes.

– Incumplimiento de alguna de las partes de las obligaciones derivadas del contrato.

– Incumplimiento de las directrices establecidas por Izenpe.

En caso de resolución o rescisión, por las causas anteriormente citadas o cualesquiera otras admitidas en derecho, el Ayuntamiento de Azkoitia deberá cumplir las obligaciones asumidas con anterioridad a la resolución del contrato frente a Izenpe y frente a terceros.

*Novena. Modificación y seguimiento.*

El presente acuerdo podrá modificarse durante su vigencia por mutuo acuerdo de las partes firmantes, incorporándose al mismo, a modo de addenda, las modificaciones acordadas.

*Décima. Jurisdicción.*

Cualquier cuestión que surja entre las partes, en relación con la interpretación o ejecución del presente acuerdo se someterá a los Juzgados y Tribunales de la ciudad de Vitoria – Gasteiz.

*Segundo.* Facultar al Alcalde-Presidente para la firma en representación del Ayuntamiento del mencionado convenio de colaboración.

*Tercero.* Publicar el texto del convenio de colaboración en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, en el Portal de Transparencia de conformidad al artículo 8.1. apartado b) de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, en el Tablón de Anuncios y página web del Ayuntamiento.

*Cuarto.* Notificar las presentes resoluciones a Izenpe, S.A. y el departamento de Intervención del Ayuntamiento.

Azkoitia, a 1 de junio de 2017.—El alcalde. (4069)